

Ihesi

Pirinioetako zeharkaldia

ARGAZKIAK ETA TESTUA:
GORKA AZKARATE

Hendaiatik Hiru Erregeen Mahaira (I)

Hendaia-Elizondo

Itsasertzetik Baztango hiriburura

Zaila da egun bat baino gehiago iraungo duen zeharkaldiko lehen urratsak egitean txangolari amestiak sentitu ohi duen zirrara hitzez deskribatzea. Xedea itsasertzean hasi, Hendaia hondartzan, eta gailur berezietan berezi batera heltzea da, Hiru Erregeen Mahaira. Beldurra, poza, ilusioa eta itxaropena nahastuko dira itsasora egindako azken begiratuan. Zeharkaldi handia hasi da.



LEHEN ETAPA: Hendaia - Lizuniaga

24km, 1200m-ko igoera metatua. Manttaleko gainetik Berara jaitsi eta hortik Lizuniagara errepidez igotzeko aukera dago, edo GR-11 jarraituz, Lizarrietan ibilbidearekin berriz bat egitekoa. Berara jaitsiz gero, era guztietako zerbitzuak izango ditugu eskura.



Aurreko orrialdean Larrun; goian, Beratik Lizarrietara bidean goazela; behean, Nabarlatsako lepotik, Ibantelli edo Labeaga aitzinean duela. Goiko argazkian ere Larrun, Txingudiko badiatik.

Kantauri itsasoko uretan hasi eta Euskal Herriko sabaira heltzea da helburua: Hiru Erregeen Mahaira (2444 m).

Euskal kostaldeko hondartzarik luzeena da Hendaiakoa; Bidasoa ibaiaren bokalea eta Abadiako labarren artean, hiru kilometro luze area finez estalita, horixe da Ondarraitz. Txingudi badiak mugatzen du mendebaldean, labarren aurrealdeko harkaitz izugarri bik, tonbarriek, ekialdean. Hareatzaren erdian antzinako kasino dago, turismoaren urrezko garaietako lekuko ikusgarria. Hondartzan oinak busti, ortzimugari azken begiratua bota eta mendialdera egingo dugu. Behobia da lehendabiziko jomuga.

Gorabehera handirik gabekoak dira lehen kilometroak; Ondarraitzik abiatu eta Santiago zubirako bideari ekingo diogu Leclerc karrikan barrena, D-912 errepidean. Mugatik gertu, 111 errepide nagusira aldatu eta Behobiara helduko gara, bigarren mailako errepide bati segika mugari izena ematen dion Biriatu herrixkara joaz hurrena. GR-10 zeharkaldi luzeko margo ikur zuri-gorriekin eta Xoldokogaina kasakoaren maldekin batera egingo dugu topo; hortzak estutzen hasteko garaia ailegatu da.

Bidea nabarmena da, galtzeko arriskurik gabea. GR-10ko margo ikurrak ez dira Xoldokogaina gailurrera igotzen. Gailurrera igo ala ez, nahikoa da, geldialditxo egin eta behakoa atzera itzultzea, Txingudiko badiaren ikuspegi paregabeaz gozatzeko. Mendialdera begiratu, berriz,

Larrungo gailurra ikusteko aukera izango dugu tarteka. Osineko lepora jaitsi eta pauso bizkorrean, Pitarako lepora helduko gara, Ibardineko aintzira inguratuz. Ibardineko mendatera heldu aurretik, ordea, iparraldetik Bera menderatzen duen Manttaleko gailurra igoko dugu, horretarako azken metroetan GR-10eko ikurrak utzita. Oroitzapen hutsa da dagoeneko Hendaia hondartzan, lehen-txeago, olatuen bitsaz freskatu izana; mendiak, etengabeko gora-behera bihurrian, jartzen dizkigun oztopoek aurrera bide ez-tian murgildurik gauzate.

Larrun

Mantale gailurrera igo ostean, aukera bi daude jarraitzeko: Larrun igotzea edo Berara jaitea, Bera eta Sara lotzen dituen Lizarrieta mendatean oster bat egiteko. Bigarren aukerak ez du inolako zailtasunik, berehalakoa baita Manttaletik Berarako jatsiera. Gainera ez da galbiderik GR-11ko margoak jarraituz Ibantelli edo Labeaga mendia inguratu eta Lizarrieta mendatera heltzeko. Larrun bezalako gailur berezi bat igotzeko aukerak, ordea, bertara bultzatu gaitu, ezinbestean. Horretarako, Ibardineko leporuntz jo dugu, eta tabako, edari eta bestelako mila gauza saltzen dituzten hamaika denden mikrokosmosa igerota, gertu somatuko dugu Larruneko

gailurra –beste mikrokosmosa, hau ere!–. Nabarmena bezain gogorra da Larrunerako igoera, baita engainagarria ere, neurri batean, gailur nagusia ezkututzen duen Larrun Txikia igo beharko baitugu gailur nagusia baino lehen... Edozein kasutan, Saratik igotzen den tren, denda, jatetxe, antena eta abarrak ahaztuz, Larrun bortizki zibilizatuak eskaintzen duen ikuspegi paregabea da, ez bairik gabe. Pirinioetako lehenengo gailur handian gaude: Larrun, 900 metro.

Ordu luzetan egon liteke Larrun gailurrean, Lapurdiko kostalde eta barnealdera begira. Bagoaz, ordea, Bera eta Sara lotzen dituen Lizuniagako mendateruntz (200m) aldatz behera, agudo. Berriz ere GR-11ko margoekin bat egitea da xedea, Beratik datozenekin, alegia. Lizarrietara arte ez ditugu topatuko.

Lizuniagan aukera bi, berriz: malda gogor xamar bati aurre eginaz Ibantelli edo Labeaga muinoa igo (698m), edo berau inguratu, txangoa kilometroren bat luzatuz baina bihotz taupadak gehiegi estutu beharrik gabe. Edonola ere zinez gomen-dagarria da Ibantelliko tontorrera igotzea, Larrunen ikuspegi ederrez gozatzeko aukera izango baitugu. Aukerak aukera denbora gutxiren buruan helduko gara Lizarrietako mendatera (440m). Etxalarko usategietan sartzeraz goaz.



Latsoko lepora bidean. Harresia baserri horma-zuriraino. Gibelean pago mugarrotuak eta barruan zelaia.

Etxalarko usategietatik Eskisaroira

Lizarietako mendatea atzean utzi eta berehala, Etxalarko usategiak kokatzen diren muino multzoan barneratuko gara. Euskal Herrian sare bidezko ehiza teknika erabiltzen den bederatzi eremuetako bat da Etxalarkoa. Ehiza molde honen lehen aipuak XIV. mendekoak dira. Antzinako kontua da, beraz, usoak berunik erabili gabe ehizatzea.

GR-11ko seinale zuri-gorriak jarraituz baso pista zabal batean aurrera egin eta Nabarlatsako lepora helduko gara. Hemen ikurrek maldan behe-eragiten dute, eskuineruntz, Zentinel muinoa inguratuz Irazakuko lepora heltzeko; guk, ordea, Atxuria igotzeko aurrera jotzen duen bidea hartuko dugu. Laster baino lehen izango dugu malda bortitza aurrez-aurre eta belarrezko bidexka batean eginen dugu goiti harik eta amaierako harri artera heldu arte. Tontorra zapaldu aurretiko harri artean kontu handiz ibiltzea

komeni da, ura eta lokatzaren eraginez irristakor egoten baitira sarri harriok. Zailtasun handirik gabe, biderik onena nondik nora doan adieraziko diguten kairn txikiei jarraituz, azken malda gaintitu eta Atxuriako talaiara helduko gara (758m). Ikuspegia ederra da norabide guztietan, nabarmentzekoa izanik Sarako arroaren gainekoa. Otsondoko mendatetik hurbil dagoen Alkurruntz gaina ere gertu xamar ikusiko dugu.

Eskisaro Alkurruntz

Puntako harriarte jaitsi eta belarrezko maldan behe-eragiatuko gara xenda nabarmen bati jarraituz Irumuga lepo sonaturantz. Nabarlatsako lepoan albo-eragiatu ditugun GR-11ko margoei segiko diegu. Geroz eta gertuago daukagu bai Baztan bai Zugarramurdi eta



2. ETAPA: Usategietatik Eskisaroira

18 km, 1000 m-ko igoera metatua. Eskisaroiko lepotik gertu, hego isurialdean, Eskisaro baserri-jatetxearekin egingo dugu topo, indarrak berritzeko leku aproposa. Gomendagarria da Atxuria mendia igotzea, Sarako ibar-aren ikuspegia gozatzeko.

Otsondoko mendatea batzen dituen Eskisaro lepoa.

Bizkor egingo dugu aurrera, baso pista zabaletan barrena, Altsuko lepora lehenengo eta Eskisaro lepora ondoren (606m).

Akabila Eskisaroitik Elizondora

Munduko txokorik ezkutuenan daudela diruditen hamaika borda ikusiko ditugu, eta Hendaia-ko itsasertza zeharo urrun utzi dugula irudituko zaigu. Paisaia basatia bezain ederra da. Poliki poliki, euskal Pirinioen errailetan barneratzen ari gara.



3. ETAPA: Eskisaroitik Elizondora

18 km, 800 m-ko igoera metatua. Alkurruntz igotzeko bidetik zertxobait desbideratu behar da, baina merezi du. Bagordiko atsedean gunetik Baztan harana begiz jotzen dugun unea berezia izango da.

Pirinioetako zeharkaldiak

MENDIZALE ASKOREN AMETSA DA Pirinioak alde batetik bestera zeharkatzea, Kantauritik Mediterraneora, edo alderantziz. Egun ugariko ahalegina da zeharkaldi osoa jarraian egin nahi bada. Azpiegitura aldetik ere, badu nolabaiteko zailtasunik, zorionez gizakiaren arrastoa ez baita hain nabarmena zenbait eremutan.

Hiru dira Pirinioak alderik alde zeharkatzen dituzten ibilbide luzeak: iparraldeko isurialdekoa GR-10 ibilbidea –Hendaia eta Portbou lotzen dituena–, hegoaldekoa GR-11 –Hondarribiako Higer lurmuturra eta Cap de Creus artekoa–, eta Pirinioen ardatz katea gailurreri garaienetatik edo ahalik hurbilenetik zeharkatzen duen HRP-a (*Haute Route*

des Pyrénées edo *Haute Randonnée Pyrénéenne*).

GR-10 ibilbidea eta GR-11 zeharkaldia margo ikur zuri gorritz zehaztutako bideak dira, eta ez dute galbiderik; HRP-a, ordea, ez dago margoz zehaztua. XX. mende hasieran, 1906an, Jean Bepmale eta Robert Ollivier mendizale eta ikertzaileek osatu zuten estreinakoz. Inork ez zuen errepikatu harik eta 1968an Georges Veron topografoak burutu eta dokumentatu zuen arte.



Eskisaroiko lepoan atsedean hartzea komeni da, bideak gora egiten baitu nabarmen ondoren; GR-11 ibilbidea ez da Alkurruntzeko tontorrera (934m) igotzen, baina gu bai. Baztango gailur majiko honek gotorkelua izan zuen beinhola. Puntara

**Munduko txoririk
ezkutuenean diruditen
bordak ikusiko ditugu**

igotzeko GR-11 bidea utzi, mendi hegala jarraituz ezkereruntz jotzen duen xenda hautatu eta Aizkozko lepora joko dugu zuzenean, Alkurruntz magalera iritsi arte. Azken malda pikoa igotzea baino ez zaigu falta Baztango ikuspegi panoramiko paregabea izateko. Irubelakaskoa, Gorramendi, Gorramakil, Auza eta beste hainbat mendi erraz identifikatuko ditugu gailur ederretik. Otsondoko errepedean dabilzan ibilgailuen zaratak baina ez du etengo hausnarketara une sakona.

Bagorditik beheiti Elizondora

Aizkozko lepora itzuli eta berriz ere GR-11ko ikurrekin bat egin beharko dugu Elizondora bidean. Azkar baino lehen beherako joera hartuko du xendak, Baztan haranaren bila. Bagordiko atsedean lekura heldu aurretik Maistruzarreko iturritik igaroko gara, eta ezin ekidingo dugu, une batez, inguratzen gaituen paisaiaren handitasunari bizpahiru minutuko behakoa eskaintzea. Mundutik aparte gaudela irudituko zaigu, Maistruzarreko borda zaharrari

begira gaudela. Antzinako kontuak asmatzen saiatuko gara, oharkabean, bordako ate eta leiho itxiei begira. Sinestezina, majikoa, irudituko zaigu noizbait paraje hauetan inor bizi izan zela pentsatzea.

Behin Bagordiko atsedean lekua igarota, zailtasunik gabeko jaitsiera erraza bilakatuko da xenda. Elizondoko karraketan zeharkaldiko lehen zatia amaitzen ari garela ohartuko gara. Baztan haraneko hiriburuan gaude, Elizondon. ■

Baztango hiriburua, Elizondo, Bagordiko atsedengunetik.





**EUSKADI
BTT-N**

**NATURA
KULTURA
GASTRONOMIA
KIROLA**

**Zure bizikleta
prestatu!
Zatoz euskadiko
BTT zentroetara**

btt euskadi
ZENTROK CENTROS

ibilbideak behera kargatu

www.paisvascoturismo.net

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, MERKATUEN
ETZEBERDIAK
DEPARTAMENTUEN ARDURAKITA,
SOSIALAKI ETZEBERDIAK

EUSKADI
atsegin handiz
con mucho gusto